



KULTURARI ETA INTERNETI BURUZKO TRACKING BILBAO 9 JARDUNALDIAK

Abenduaren 13tik 18ra, Kulturari eta Interneti buruzko [Tracking Bilbao](#) jardunaldien bederatzigarren edizioa ospatuko dugu [Bilborock](#) aretoan, [Caosticaren](#) eta [Borja Cresporen](#) eskutik.

Aste bizia izango dugu aurretik, eta hainbat emanaldiz gozatzeko aukera izango dugu sei egunez: **estreinaldiak, proiektzioak, masterclass-ak, kontzertuak, komedia ikuskizunak, podcast-en zuzeneko grabazioak, hitzaldiak...** Horietan guztietan, gonbidatu apartak izango ditugu gurekin, hala nola **Miguel Noguera** komiko eta artista polifazetikoa; **Carmen Romero** *youtuber*, komiko eta gidoigilea, zeinak komedia ikuskizuna eskainiko baitu **Xavi Daura (Venga Monjas)** eta **Enrique Barroekin** batera; **Pedro Vallín** idazle eta kazetaria, sareetan presentzia handia duena («Me cago en Godard», «C3PO en la corte del Rey Felipe»); Laura Pérez marrazkilaria (Tótem); «**Gora Automatikoa**» animazio-filmaren aurrestreinaldia (2022ko Goya sarietarako proposatutakoa), **David Galán Galindo**, **Pablo Vara** eta **Eshaú Dharma** zuzendariekin; **SU TA GAR** musika taldearen unibertso lirikoari buruzko «Sua» komikiaren aurkezpena; «¿**Puedo hablar!**» *show/podcast-a* zuzenean (Perra de Satán eta Esnórquel); **Ricardo Lezónen** kontzertua (Mc Enroe), **Higi Vandis** eta **Conxita Herrero** zuzenean marrazten ariko direlarik...

2021ean, **Tracking Bilbaok** are ahalegin handiagoa egin du profesionalen arteko eztabaida eta sinergiak sustatzeko; hartara, erdigunean jarri ditu ikus-entzunezko bitartekoak, kultura-kudeaketa eta sormenaren industriak, horien inguruko hausnarketarako, ikaskuntzarako eta ekintzailetzarako gonbita luzatze aldera. **Tracking Industry** atalean, **Bilbao Ekintzarekin** lankidetzan, gorakada izan duen *Podcasting*-aren industriari emango zaio arreta, eta diziplina arteko proiektuen garapena jorratuko da. Horrekin lotuta, ikus-entzunezko kulturari eta Interneti buruzko jaialdi espezializatuen arteko topaketa planteatuko da, beste hainbat ekitaldiren artean (**Serializados Fest** eta **Carballo Interplay**, baita **Tracking** bera ere). **Beñat Erezuma**, euskarazko edukien sortzailea (**Euskara Satorra**), izango da gure artean; baita zinearen, telesailen eta genero-ikuspegiaren arloan dibulgatzaile diharduten **Las Bloody Girls** bikotea ere. **David Galán Galindo** zuzendariak, Netflix-eko «Orígenes Secretos» film arrakastatsua arduradunak, *masterclass-a* eskainiko du. Era berean, *podcast*-ei eta eduki digitalei buruzko topaketa egiteko asmoa ere badugu, eta bertan izango dira, besteak beste, **Sonia Méndez**, **Beatriz Cepeda** eta **J.A. Pérez Ledo**. **Pernan Goñi Olalde** artista bisualak marraztuko ditu zuzeneko *graphic recording* teknikaz jaialdi topaketa eta *podcast*-ari buruzko meetinga. Azpimarratzekoa da azken berritasuna ere: ekoizpena eta sormena sustatzeko ahaleginak indartu ditugu, eta, horri esker, **Euskadiko podcast-ik onenak** (euskaraz zein gaztelaniaz sortutakoak) saritzeko deialdia jarriko dugu martxan. Sari gisa banatuko dira, besteak beste, zuzkidura ekonomikoak, espazioen lagapena eta grabazio-materiala.

Hemen deskarga dezakezue **prentsa kit-a**, kartela, egitaraua, goiburua animatua eta jarduera guztien irudiak barne: [PRENTSA KIT-a](#)

Programazio osoa hemen eskura dezakezue: [PROGRAMAZIOA](#)

Informazio gehiago nahi izanez gero, edo gonbidaturen bati zein antolakuntzako kideren bati elkarrizketa egin nahi izanez gero, jarri harremanetan hauekin:

Juan Dopico: 680 164 289, juan@caostica.org / Nitya López (euskaraz): 673 343 585, nitya@caostica.org

Eskerrik asko. Agur bero bat.

